

Xedea

Aritzatxuko kantinaren eta komunaren emakida esleitzea

2021000002034

Aurrekariak

Lehenengoa: 2021eko martxoaren 25ean, 869 zk. Alkatetza Dekretu bidez, Aritzatxuko kantinaren eta komunaren emakida esleitzeko deialdiaren oinarriak onartzeko erabakia hartzen da.

Bigarrena: Iragarkia BAOn argitaratzen da (65. iragarki zenbakia), 2021eko apirilaren 9an.

Hirugarrena: Emandako epe barruan, honako hauek eskaintzak aurkeztu dituzte:

- Asociación Estudiantil Junior Empresa Stamm
- Eider Renteria Galíndez andrea
- Oier Erauzkin Santos jauna
- Joseba Gabantxo Pérez jauna
- Asociación Estudiantil Junior Empresa Hagalaz

Laugarrena: 2021eko maiatzaren 5ean Kontratazio Mahaia biltzen da, aurkeztutako eskaintzen A gutun-azaleko dokumentazioa ireki eta kalifikatzeko. 3 laneguneko epea ematen da lizitatzailerik batzuek euren proposamenak zuzentzeko.

Bosgarrena: Emandako epea barruan, guztiek zuzendu dituzte eskatutako atalak, eta, hortaz, lizitatzailerik guztiak onartuak dira prozeduran.

Seigarrena: 2021eko maiatzaren 18an, Kontratazio Mahaiak proposamen ekonomikoari buruzko eskaintzak irekitzen ditu (B gutun-azala), hurrengo emaitzarekin:

Izen-abizenak	Prezioa
Asociación Estudiantil Junior Empresa Stamm	512,00 euro
Eider Renteria Galíndez	225,00 euro
Oier Erauzkin Santos	320,00 euro
Joseba Gabantxo Pérez	460,00 euro
Asociación Estudiantil Junior Empresa Hagalaz	557,00 euro

Horiek horrela, Kontratazio Mahaiak erabaki du organo eskudunari proposatzea Asociación Estudiantil Junior Empresa Hagalaz entitateari emakida esleitzea, eskaintza ekonomikorik onuragarriena izan delako.

Zazpigarrena: Errekerimendu bidez dokumentazioa eta bermea eskatu zaizkio entitateari. Lizitatzailerik horrek pleguetan eskatzen diren agiriak aurkeztu ditu epe barruan, baita



behin betiko bermea ere. Era berean, Diruzaintza Sailak baieztatu du udalarekin zorrik ez daukala.

Argudioak

Lehenengoa: Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 93.1 artikulua ezartzen duenez jabari publikoko ondasunen gaineko emakidak lehia bidez emango dira. Ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 78.2 artikulua ere antzeko terminoetan adierazten da, hurrengoa xedatuz: *“las concesiones se otorgarán previa licitación, con arreglo a los artículos siguientes y a la normativa reguladora de las contratación de las corporaciones locales.”*

Bigarrena: Kasu honetan, esleitzeko prozedura enkantea izan da, baldintza oinarrien 3. klausulan xedatutakoaren arabera: *“Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legeko 93. artikuluan eta Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuko 78. eta 80. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, emakida hau enkante bidez esleitu da, hau da, prezio altuena eskaintzen duenaren alde egingo da eta berdinketarik egon ezker, zozketa bidez erabakiko da.”*

Hirugarrena: Halaber, baldintza agirien 12. klausulan hurrengoa adierazten da: *“proposamenak zabaldu eta, gehienez, hilabeteko epean, dagokion udal organoak, emakiden esleipena egingo du, eskaintza altuena aurkeztu duenaren alde”.*

Laugarrena: Emakidaren esleipena onartzeko ahalmenari dagokionez, Sektore Publikoen Kontratuak arautzen duen 9/2017 Legearen II. Xedapen Gehigarriaren 9. atalaren arabera, ahalmena alkateari dagokio, oinarrizko aurrekontua ez baita egungo udal aurrekontuko baliabide arrunten % 10 baino handiagoa. Hala ere, 2021eko martxoaren 11ko 702 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, ahalmena Tokiko Gobernu Batzarrarengan delegatu zen.

Bosgarrena: Urgentzia eta eraginkortasun arrazoiak direla eta, komenigarritzat jotzen da eskumen hori pertsona bakarreko organo bati ematea, deialdirik eta bilkurarik egin beharrik ez duenari, eta, ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarrarengan dagoen eskumena bereganatzea, administrazio egintza hau emateari dagokionez.

Horri dagokionez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 10. artikuluan xedatutakoa da aplikagarria, Toki Entitateen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 116. artikuluekin bat etorritik.

Orobat, azken xedapen horren arabera: *“el órgano delegante podrá avocar en cualquier momento la competencia delegada con arreglo a la legislación vigente sobre procedimiento administrativo común.”*



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E50006EECD00U6E5W0E2E6M3

Sinadurea eta data

ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 09/06/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/06/2021
09:56:59

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0051
Data: 26/02/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unitadea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E50006EECD00U6E5W0E2E6M3



Erabakia

Goian aipatutakoa kontuan izanda, honako erabakitzen egiten dut:

LEHENENGOA: Alkateak administrazio egintza hau emateko duen eskumena bereganatzea.

BIGARRENA: Eskumena bereganatzeak, ebazpen hau sinatzen den unean izango ditu ondorioak, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean noiz argitaratzen den kontuan izan gabe.

HIRUGARRENA: Aritzatxuko kantinaren eta komunaren emakida esleitzea Asociación Estudiantil Junior Empresa Hagalaz entitateari, administrazio-klausula partikularren orrian zehazten diren baldintzetan, udalaren interesetarako eskaintzarik onuragarriena aurkeztu duelako.

LAUGARRENA: Emakidaren kanona hilean 557,00 eurokoa izango da, aurkeztutako eskaintzaren arabera.

BOSGARRENA: Emakidaren epea 4 urtekoa izango da, administrazio-klausulen agiriko 4. atalaren arabera, eta hurrengoaldiak izango ditu:

- 2021eko ekainaren 9tik 2021eko irailaren 30ra.
- 2022ko ekainaren 1etik 2022ko irailaren 30ra.
- 2023ko ekainaren 1etik 2023ko irailaren 30ra.
- 2024ko ekainaren 1etik 2024ko irailaren 30ra.

Epe hori luzaezina izango da eta, beraz, hura betetakoan, jabari publikoaren erabilera pribatiboa utziko da.

SEIGARRENA: Kontratua administrazio-agiri batean formalizatzea, esleipen honen jakinarazpena jaso eta hurrengo 15 egun baliouduneko epean. Horretarako, behar bezala deituko zaio esleipendunari.

ZAZPIGARRENA: Esleipen hau eta kontratuaren formalizazioa Bermeoko Udalaren kontratugilearen profilean argitaratzea.

ZORTZIGARRENA: Erabaki hau Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasunari jakinaraztea, Ondare Eskualdaketen gaineko Zerga likidatzeko, martxoaren 24ko 1/2011 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorritik, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzkoa.

BEDERATZIGARRENA: Ingurumen Sailera igortzea, jarduera gauzatzeko behar diren baimenen gaineko izapideak egikaritzeko.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E50006EECD00U6E5W0E2E6M3

Sinadurea eta data

ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 09/06/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/06/2021
09:56:59

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0051
Data: 26/02/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E50006EECD00U6E5W0E2E6M3



HAMARGARRENA: Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea, erabaki honen aurka dagozkion errekurtsioak adieraziz.

HAMAIKAGARRENA: Hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean eta Osoko Bilkuran akordio honen berri ematea.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E50006EECD00U6E5W0E2E6M3

Sinadurea eta data

ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 09/06/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/06/2021
09:56:59

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0051

Fecha: 26/02/2021

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:

Erregistro nagusia

CSV: 07E50006EECD00U6E5W0E2E6M3

